



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2017KO URRIAREN 11N TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA**

### **Etorri diren batzordekideak:**

**Mikel Agirrezabala Ezkurdia**  
**Itziar Arratibel Imaz**

Etorri diren zinegotziak:  
Jon Mikel Iglesias Otegui  
Jesus Peñagarikano Labaka  
Maria Cristina Goya Amiama  
Eleuterio Sanchez Garcia

**Idazkaria:** Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2017ko urriaren 11n udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

### **LEHENA:**

#### **1.2017KO IRAILAREN 22KO AKTAREN ONARPENA**

2017ko irailaren 22an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

**BAKARRA:** Onartzea 2017ko irailaren 22an eginiko Gobernu Batzarraren akta



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **BIGARRENA:**

### **2.-2017KO IRAILAREN 22AN BURUTURIKO INGURUMEN, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZA BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK**

#### **2.1 MUGIKORTASUN ASTEA 2017. BIZIBIRAKO GASTUAK**

2017ko Mugikortasun Astearen baitan, irailaren 22an, kotxerik gabeko egunean, Ibarra eta Tolosako udalek Bizibira bat antolatu zuten Tolosaldea Garatzenen eta GFaren laguntzarekin.

Bizibiraren ibilbidea hau izan zen:

Ibarra Uzturpe Ikastola ; Samaniego ; Herrikide ; Laskorain ; Zumardi

- ✓ 16:30ean abiapuntua Ibarra plaza
- ✓ 17:00etan Samaniego
- ✓ 17:15ean Herrikiden
- ✓ 17:30ean Laskorain
- ✓ 17:45ean Zumardin

Uzturpe Ikastolari eta Samaniego Ikastolari sari bat (sinbolikoa) eman zitzaizkien azken urteotan OINEZ BUS ekimena abian jarri eta mantentzeagatik, ikasleak ikastolara oinez joatea bultzatuz.

Bizikleta martxaren ostean, Zumardin jaialditxo bat egin zen:

- ✓ Merendola
- ✓ Jokuak
- ✓ Intujai taldearen laguntza ekintza alaitzeko
- ✓ Oinez Buseko arduradunei saria

Kontuan hartuta aipaturiko ekimen honen antolakuntzak 4.889,09 euroko gastua izan duela, eta Tolosaldea Garatzenek honoko banaketa proposatzen duela ordainketa egiteko:

<b>EKINTZA</b>	<b>TG (€)</b>	<b>GFA (€)</b>	<b>TOLOSA (€)</b>	<b>IBARRA (€)</b>
----------------	---------------	----------------	-------------------	-------------------



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

JOKOAK			800	
MERIENDA (Peñaskal)				415,91
ANIMAZIOA (Intujai)		1.500		
MUSIKA EKIPOA + SPEAKER	200			
KARTELA + OROIGARRIAK	584			
ARGINDARRA				280
SEGUROA (Mapfre)				159,58
Medikuntza asistentzia			101,08	
<b>GUZTIRA</b>	<b>948,64</b>	<b>1.815</b>	<b>1.090,31</b>	<b>1.035,14</b>

Non:

- ✓ TGek bere aurrekontu partidaren Mugikortasun Asterako duen kopurua (1.500 €) bi Bizibiratan banatu behar duen; batetik, Ibarra – Tolosa, eta bestetik, Villabona-Zizurkil.
- ✓ GFak 3.000 €-ko diru laguntza duen bideratuta Ibarra – Tolosa bizibirarako, baldin eta gastuak 6.000 €-tik gorakoak balira. Guztizko zenbatekoa txikiagoa izanik, diru laguntza ere 3.000 €-tik beherakoa da.
- ✓ Gainerako gastuak bi udalen artean banatu behar diren, antolatzaileak Ibarra eta Tolosako udalak baitira.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak 1.035,14 € horiek 2017ko Aurrekontu Orokorraren bitartez finantziatu ahal dituela, 1.0000.226.170.00.06 2017 partidaren bitartez.

2017ko irailaren 22ko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENENGOA.-** Onartzea 2017ko Mugikortasun Astearen baitan antolatutako Bizibiraren guztizko gastuak eta Ibarra Udalak Peñaskalen, Mapfreren eta argindarraren fakturak ordaintzea, 1.035,14 euroko gastuarekin.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**BIGARRENGOA.-** Kontuhartzaitzak Peñaskalen, Mapfreren eta argindarraren zenbatekoak 1.0000.226.170.00.06 2017 partidaren bitartez ordaintzea fakturak iristen direnean.

**HIRUGARRENGOA.-** Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea.

**LAUGARRENGOA.-** Erabaki honen berri Tolosaldea Garatzeneri ematea, ordainketak bideratu ditzan (E).

## **2.2 EGUBERRIETAKO ARGIEI KONPONKETA**

2010 urtean Ibarra Udalak kontsumo bajuko hainbat argi erosi zituen eguberrietan jartzeko, ordea, azken urteotan horietariko batzuk hondatu egin dira eta konpontzeke daude.

Kontuan hartuta ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariak udal elektrizistak gainbegiraturako bi olentzero eta 2010ean erositako sei argi konpontzeko aurrekontua eskatu diola Argirun enpresari.

Kontuan hartuta Argirun enpresak 1.573 €-ko aurrekontua aurkeztu duela aipaturiko sei argiak konpontzeagatik, bi olentzeroak datorren urterako pendiente utzita, koloredun argiak direlarik berandu egiten baitzaio berauek konpontzea.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak zenbateko hori 2017ko aurrekontu orokorretik finantziatu ahal duela, 1.0000.226.431.00.06 partidaren bitartez.

2017ko irailaren 22ko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENA:** Onartzea Argirunen aurrekontua , guztira 1.573 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne, Udalarenak diren sei argi konpontzeko.

**BIGARRENA:** Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000.226.431.00.06 2017 partidaren bitartez ordaintzea faktura iristen denean.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari ematea.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Argirun enpresari ematea (E).

### **2.3 ARGITERIA PUBLIKOA GURIDI 11 KALEAN. AURREKONTUA**

Jesus Guridi 11 kaleko argiak, frontoiaren inguruan, egoera kaxkarrean aurkitzen dira eta hori dela eta, ingurumen, merkataritza eta nekazaritza teknikariak, udal elektrizistaren laguntzarekin, Neovilla motako argiaren aurrekontua eskatu dio Setalderi, aurrez dagoen argiaren tankerakoa.

Kontuan hartuta guztira 7 argi direla eta LED motako argiak jartzeko helburu duela Ibarra Udalak, energia kontsumoa murrizte aldera.

Setaldek Neovilla LED 35 W-ko 7 argien aurrekontua aurkeztu du, guztira 1.957,42 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

Ikusita Udal honetako Aurrekontua gauzatzeko 2017ko udal-araudiaren 17. artikuluko 3. puntuak honeako ezartzen duela:

*3.- 3.000 euro baino gehiagoko gastu edo kontratazioetan, zuzeneko kontratazioaren espedientean jasota geratuko da esleipena egin aurretik, hiru aurrekontu gutxienez eskatu direla hiru enpresa desberdini. Eta 3.000 euro baino gutxiagoko gastu edo kontratazioetan ez da derrigorrezko izango aipaturiko hiru aurrekontu eskatzea.*

Ikusita gastua ez dela 3.000 eurotik pasatzen eta, ondorioz, ez dela beharrezkoa hiru aurrekontu eskatzea.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak zenbateko hori 1.0000.623.165.00.02 2017 aurrekontu partidatik finantziatu dezakeela.

2017ko irailaren 22ko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENEA: Onartzea Setalderen aurrekontua, guztira 1.957,42 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1. .0000.623.165.00.02 2017 aurrekontu partidatik ordaintzea faktura iristen denean.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea.

BOSGARRENA: Erabaki honen berri Setalderi ematea. (E).

## **2.4 BUZOIAK ARGINDEGI KALEAN IZASKUNGO BIZILAGUNENTZAT**

Izaskun auzoko bizilagun batzuen buzoiak Argindegri kaleko aldapan aurkitzen dira; horietatik 10 oso zaharkituak daude, beste 4 berriz egoera onean.

Kontuan hartuta Uztularre elkarteak Udalari eskatu diola 10 buzoi horiek berritzea. Kontuan hartuta Udaleko ingurumen teknikariak Lorepark enpresari aurrekontua eskatu diola, hain zuzen, soportea duten 14 buzoi berritzeko, ondo dauden 4 buzoi horiek Egialde auzoan jartzeko aukerarekin, Egialdeko 4 ere zaharkituak baitaude.

Kontuan hartuta Lorepark enpresak honoko bi aukeren aurrekontuak aurkeztu dituela:

<b>AUKERAK</b>	<b>KOPURUA</b>	<b>EUROAK (BEZ BARNE)</b>
LEHENA	8 + 8 (gehienez 12 buzoietako blokea baitago, gainerakoan pareak izan behar direnez)	1.910,69
BIGARRENA	14 (14 buzoietako bloke bat)	1.876,26

Kontuan hartuta bi aukerak baloratuta ekonomikoki merkeagoa ateratzen dela lehena, hau da, 8 buzoietako bi blokeen aurrekontua, guztira 16 buzoi baitira, bigarren aukerako 14 buzoi aurrean.

Kontuan hartuta Ibarra Udalak zenbateko hori 1.0000.625.153.30.00 2017 aurrekontu partidatik finatziatu dezakeela.

2017ko irailaren 22ko Ingurumen, Merkataritza eta Nekazaritza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA: Onartzea Lorepark enpresak aukeztutako aurrekontuen lehen aukera, 8+8 buzoietako bi blokeak, guztira 1.910,69 euroko zenbatekoagatik, BEZ barne.

BIGARRENA: Kontuhartzaitzak zenbateko hori 1.0000.625.153.30.00 2017 aurrekontu partidatik ordaintzea, dagokion faktura iristen denean.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri kontuhartzaitzari ematea

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Lorepark enpresari ematea. (G + E)

### **HIRUGARRENA:**

### **3.-UDALTZAINEN LANPOSTUA BETETZEKO OINARRIEN ZUZENKETA**

Tokiko Gobernu Batzordeak, 2017ko otsailaren 10ean eginiko bilkuran, onartu zituen besteak beste, Udal honetako plantillan hutsik dauden, bi udaltzain lanpostu jabetzan betetzeko lehiaketa-oposizio askearen oinarriak.

Oinarriak 2017ko uztailaren 26an Gipuzkoako Aldizkaria Ofizialean argitaratu ziren.

Oinarrien 5. Puntuak akats bat ikusi da eta hori zuzendu egin behar da.

Guztia ikusi ondoren hona, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENA: Aldatzea bi udaltzain lanpostu betetzeko lehiaketa-oposizioko oinarrien 5 b) puntuaren hirugarren atala (2017ko uztailaren 26an Gipuzkoako Aldizkaria Ofizialean argitaratu zirenak).

#### **Esaten du:**

Lanbide-eskarmentua:

- Zerbitzuak prestatu diren Administrazioaren ziurtagiri bidez, ondorengo zehaztasunak ziurtatuz: Denboraldia, maila, lan egindako arloa, betetako eginkizunak eta lanaldiaren ehunekoa.
- Lan-bizitza, GSEIk (INSS) emana.
- Lan-kontratuak, hurrenez hurreneko luzapenak edota kontratu-aldaketak baldin baleude.
- Funtzionario-izendapenak.

Eskabidean zehaztu eta egiaztatu diren merituenak soilik hartuko dira kontuan.

#### **Esan behar du:**

7

GB 20171011



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Lanbide-eskarmentua:

- Zerbitzuak prestatu diren Administrazioaren ziurtagiri bidez, ondorengo zehaztasunak ziurtatuz: Denboraldia, maila, lan egindako arloa, betetako eginkizunak eta lanaldiaren ehunekoa.
- Lan-bizitza, GSEIk (INSS) emana.
- Lan-kontratuak, hurrenez hurreneko luzapenak edota kontratu-aldaketak baldin baleude.
- Funtzionario izendapena, edota lan-kontratuak, eta baldin baleude, hurrenez hurreneko luzapenak eta kontratu-aldaketak.

Eskabidean zehaztu eta egiaztatu diren merituak soilik hartuko dira kontuan.

**BIGARRENA:** Eskaerak aurkezteko epea 10 egun natural luzatzea erabaki honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

**HIRUGARRENA:** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitara ematea.

#### **4.- ARTXIBOAREN INGURUAN EGINDAKO XAHUKETA LANAREN PROPOSAMENAREN ONARPENA**

2017ko ekainean, Ibarako Udalak artxiboan zuen leku faltagatik eguneratu beharra zegoela ikusita, artxiboaren xahuketa eta optimizaziorako esleipena Ereiten Kultur Zerbitzuari esleitu zion.

2017ko irailaren 27an Ereiten Kultur Zerbitzuak, egindako lanaren ondorioz, 2657 espedienteren deuseztapena egitea proposatu zuen. Horretarako, Gobernu Batzordeari egindako lanaren txostena eta deuseztatu beharreko artxiboen zerrenda eta deskribapena aurkeztu dizkio.

Espedienteen deuseztapena onartuz gero, Covasederi aurkeztu beharko zaio onarturiko artxiboen zerrenda eta honek baimena eman behar du dokumentu horiek guzitik deusezteko.





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Deuseztapena egoki egiteko eta bertan dagoen informazioa bermatzeko enpresa bat kontratatu behar da. Ikusirik bertan dauden datuak babes berezikoak eta izaera pertsonalekoak direla, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzak baimenduriko enpresa batek kudeatzea dokumentu horien suntsipena. Hau ikusirik, Segihiru enpresari aurrekontua eskatu zaio. Aurrekontuan prezioa dokumentuen kilo gramoen arabera kalkulatu behar da. Egun ez dakigu zenbateko pisua izango duten dokumentu horiek baina aurrekontua honakoa da : dokumentuak jasotzea 75 euro orduko, dokumentuen suntsipena eta honen ziurtagiria 500kg baino gehiago zerbitzu minimoa 60 euro eta 500kg baino gutxiago denean 0,12 euro kg-ko.

Guztia aztertu ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

**ERABAKIA**

**LEHENENGOA-** Onartzea Ereiten Kultur Zerbitzuak aurkezturiko espedienteen deuseztapen zerrenda.

**BIGARRENGOA:** Baimena eskatzea Covasede-ri onarturiko espediente zerrenda suntsitzeko.

**HIRUGARRENGOA:** Baimena lortuz gero, Segihiru enpresaren aurrekontua onartu eta dokumentuen suntsipena burutzea (esleipena baldintzatua gelditzen da Covasederen baimenari).

**5.-GALDE ESKAERAK**

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu and.ak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamaikak eta hamabost direnean, eta nik, idazkari naizen honetan, horixe egiaztatu nahi dut